

ZESTOA / Lekuz aldatuta, inauguratu zain da Udal liburutegia

Bi hilabete eta erdiko etenaldiaren ostean, zentroak "harrera oso ona izan duela adierazi dute arduradunek

ANE OLAIZOLA

Joan den ostiralean ireki zuten Udal liburutegia Zestoan, bi hilabete eta erdiz lekualdatze lanetan ibili eta gero. Ordura arte Udaletxeko azken solairuan zegoen liburutegia, eta orain Portale Kanean zabaldu dute; Portalekoa eraikinean, hain zuzen.

Materiala aldatzen jardun dute orain arte. Etenaldia eta gero, herritarrek gogoz hartu dute liburutegi berria: "Jendeak gogotsu hartu du irekiera. Izugarritzko harrera ona izan du irekierak, herritar asko dabil azken egunetan, dio Amaia Garate liburutegiko arduradunak.

Aurreko eraikinean zegoen "leku faltagatik erabaki zuten liburutegia lekuz aldatzea. "Orain hobeto egituratuta dago. Aurrekoa txikigiegia zen, guztia gela bakarrean zegoen pilatuta. 35.000 euroko aurrekontua izan dute lanek.

Inaugurazio datarik ez

Orain, berriz, hainbat ataletan banatu dute liburutegia. Hala, haurren, helduen edota berrikuntzen txokoak jarri dituzte. Halaber, Internet zerbitzua eta egunkariak irakurtzeko tokia ere badute erabiltzaileek. Ia lan guztiak amaitu dituzte, eta material gehienak eraikuntza berrian daude jada.

Irekita badago ere, liburutegia oraindik ez dute inauguratu. "Azken gauzak txukundu nahi ditugu oraindik, eta, horregatik, ezin dugu zehaztu noiz egingo dugun, dio Garatek.